

2002KO UZTAILAREN 18KO **OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta biko uztailaren hemezortzian, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Inazio Estensoro Eskisabel, Gorka Lamy Intsausti, Arantxa Zumelaga Agirre, Irantzu Amundarain Irizar, Jon Agirre Garmendia eta Juan Manuel Serna Portugal.

Igor Sarriegi Zumarraga, Urko Irastortza Aldanondo, Joseba Hernandez Madinabeitia eta José Luis Otamendi Romero zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurutuzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztzen da 2002ko ekainaren 27an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatetzaren Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

III.- ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA PUNTUALA. 6 HIRIGINTZ AREA: BEHIN BEHINEKO ONARPENA.-

Lazkaoko Udaleko Osoko Bilkurak, 2002ko apirilaren 25eko akordio bidez, Roberto Garcia Azpiri eta Ana Ezeiza Agirre arkitektoek eta Jon Orue-Etxeberria Iturri abogatuak idatzitako 6 Hiri Areako Lazkaoko Planeamenduko Arau Subsidiarioen aldaketa puntuala dokumentua haserako izaeraz onartu zuen. Aldaketa honek gunehorretan zaharren egoitzerako eraikin bat eraikitzea ahalbideratzea du helburu.

Dokumentua jendaurrean egon da hilabete bateko denboraldian, iragarkiak 2002ko maiatzaren 14 datako "Egunkaria" eta "El Diario Vasco" egunkarietan eta 2002ko maiatzaren 17 datako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zirelarik. Epe horretan alegazio bakarra aurkeztu da, Miguel Angel Pujana eta beste batzuk izenpetutakoa.

Aurkeztutako alegazioaren aurrean dokumentuaren tekniko erredaktatzaileek honako txostena egin dute:

"1.- Lehenik abantzearen dokumentuari alegatzaile beraiek aurkeztutako iradokizunen idatziari egiten diote aipamena eta hartan berresten direla jasotzen da.

Hildo beretik, txosten hau izenpetzen dugun teknikariok une hartan idatzitako txostenera jotzen dugu eta, zehazki, Abantzeko dokumentu hartan jasotzen diran

...///...

...///...

edukinak planeamendu integrala puntualki aldatzeko erizpideak, helburuak eta aterapide orokorrak biltzen dituen dokumentuak bildu beharrekoak direla puntualizatu.

2.- Gerontologi Etxea kokatzeko aukeratutako gunea, erabaki diskrezional bati dagokio eta inolaz ere ez arbitrario bati, eta gainera erabaki honek ezaugarri hauetako instalazioei dagozkien aginduak betetzen ditu, Foru Erakundeko dagokion Departamenduak inolako eragozpenik ez jarri izanak hala kreditatzen duen bezala. Edozein modutara ere, dokumentuaren behin betiko erabakia Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokionez, alegatzaileek hel egindako apreziazioaren bat emango balitz, honek une horretan konstaraziko luke.

Aldaketa dokumentuak ukitutako azalaren xede aldaketari buruz egiten diren aipamenen inguruan, esan alegatzaileek adierazten duten lotura salbuetsita gelditzen dela egitasmoaren aldaketa suposizioetan (Hirigintza Kudeaketako Arautegiaren 47.2 artikulua), eta hori da ari geran honetan gertatzen dena.

Hau horrela izanda ere, indarrean dagoen Arau Subsidiarioak, lehengo Egitasmo Orokorren berrikuskaketa prozesuan onartutakoa, lursailaren erabilera aldaketa aurrikusi zuen "herri eta gizarte interes zerbitzu"etarako, eta atal horretan barneratzen da jarri nahi den hornidura.

3.- Aurrikusitako ordenamendu berriarekin espazio libreen azalerak murriztu egiten direnaren aipamenaren inguruan onartutako garapen planeamenduko zonifikazioaren analisi berri bat egin ondoren, ikusi da, horrela dela bai, eta haserakoz onartutako dokumentuak ordenamendu berriarekin murrizten diren azalerak ez dituela birjartzen, eta beraz atal honetan zuzendu egin behar da.

4.- Azkenik, eta alegatzaileek aurkeztzen duten irtenbidea aztertutik, planeamendu orokorraren aldaketa hastea xedatu zenean planteatu ziren beharrei erantzun dezaiekela deritzogu. Ildo honetan eta lursail eraikigarriaren konfigurazioak aipatu beharrei erantzuna eman dezaiekelaren ustetan alegazioaren apartatu honen estimazioaren aldeko txostena egiten da, erabakiaren aukerari buruzko erabakia Udalari baldin badagokio ere."

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du gai honetan orain artean abstenitu egiten zirela egin nahi dena egiteko gune egokiagoak badaudela kontsideratzen zutelako, baina gune hoiek beste erabilera batzuetarako planteatzen direla eta hoietarako kalifikatuak izan direla, bakarren bat jadanik burutzen ari dela, eztabaida honek ez daukala zentzurik eta bestalde Arau Subsidiarioen aldaketa honekin planteatzen dena beharrezko zerbitzu bat dela eta horregatik aldaketaren alde bozkatuko dutela.

Guzti horren aurrean, Udal Osoko Bilkurak, bertaratutako bere 7 partaideen aldeko botuarekin, eta beraz, Udalaren legezko gehiengo osoaren aldeko botuz, honako akordioak hartzen ditu:

1.- 6 Hirigintza Arean Arau Subsidiarioen aldaketa puntualaren haserako onarpenaren aurrean aurkeztutako alegazioa zati batean estimatzea, teknikarien txostenean azaltzen den zentzuan, hau da espazio libreen azalera handituz eta lursailaren konfigurazioa aldatuz alegatzaileek proposatu moduan.

2.- Estimaturako alegazio zatiaren arabera dokumentua aldatu, Arau Subsidiarioen aldaketa puntual hau behin behingoz onartu eta dokumentua Gipuzkoako Foru Aldundira bidaltzea, honek behin betiko onarpenari buruz ebatzi dezan.

...///...

...///...

IV.- ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA PUNTUALA, 10 H.A., 12 H.A., 1 S.: ABANTZE-AREN ONARPENA.-

Lazkaoko Udalak sustatu eta Roberto Gartzia Azpiri eta Ana Ezeiza Agirre arkitektoek eta Jon Orue-Etxebarria Iturri abogatuak idatzita, "10 H.A., 12 H.A. eta 1 S. gunetako Lazkaoko Planeamenduko Arau Subsidiarioetako Aldaketa Puntualaren abantzea" dokumentua aurkezten da Osoko Bilkurara bere onarpenerako.

Aldaketa puntual honen helburuak ondorengo hauek dira:

- 12 H.A.n aurrikusitako zerbitzu erabilerak egoitzazkoengatiko ordezkatzeta.
- GI-120 errepidea, Lazkaomendiko bidea eta udalerrirako bidearen arteko bidegurutze glorieta birkokatzea.
- Errepide bariantearen zuzenketa, 3 Sektoreko hegoaldean hasten den oinezko bidearen jarraipena era berean 3 Sektorea eta 1 Sektorearen tartean hasitako bidearen jarraipena ahalbidetuz.
- Erdi gunearen menpeko gune batean ez baxik honen osagarria izango den hiri gune baten konfiguraketa.

2002ko otsailaren 26ko Alkatetzaren Ebazpen bidez Aldaketa Puntual honen abantzearen lanak jendaurreko erakustaldian jartzea erabaki zen.

Jendaurreko erakustaldi denboraldian bi iradokizun aurkeztu dira, bat Lasasnaola sendiak eta bestea Oria Estensorotarrek aurkeztutakoak.

Iradokizun hauen aurrean dokumentuaren tekniko erredaktatzaileek honako txosten hau egin dute:

1.- Lasasnaolatarrek egindako iradokizunaren aurrean:

Aldaketaren abantzeko dokumentuaren ordenamendu proposamenak eraikuntzaren kontsolidazioa aurrikusten du, bere inguruan 50 m² inguruko lursail librearekin eta gainontzeko lurra oraindik mugatu gabe dagoen burutze unitate batean sartuko direlarik, eta unitate hau, dagokion garapeneko planeamenduko dokumentuan (Barne Eraldakuntzarako Berariazko Egitasmoan) zehaztuko da.

Aurkeztutako iradokizuna eta bertan aipatzen den hitzarmena aztertu dira eta azken honetan esaten da ahal den neurrian Udalak bere aldeko jarrera azalduko duela eraikina eraikigarri ez den gainontzeko lursailarekin jasoko dituen gune bat mugatuko dela, eta hau horrela egoki ikusten da eraikinera lotuta geldituko den eraikuntzatik libre gelditzen den lursail zatia gehitzea, atzeko paretean 10,40 m.ra, 5,50 m. Mendebaldeko paretean eta 8 eta 12 m. arte Ekialdeko paretean, dena den guzti hau dagokion garapen dokumentuan (Barne Eraldakuntzarako Berariazko Egitasmoa) zehaztuko da zehatz mehatz.

Lurjabeei zuzenean informatzeari buruz esan planeamendu onarpenetan banakako jakinarazpena bakar bakarrik inizatiba partikularreko garapen egitasmo kasuetarako aurrikusten dela (Hirigintza Planeamenduko Arautegiaren 139. artikulua).

...///...

...///...

2.- Maria Pilar, Maria Ignacia eta Francisco Javier Oria Estensorok egindako iradokizunaren aurrean:

Iradokizuna eta aurkeztutako planoa aztertu ondoren esan behar da 10-12 H.A.n sartzeari eskatzen den lursailak sartzeko, gune guztiarentzako planteatzen den ordenamenduari, hirigintza aldetik, ez zaiola inolako elementu positiborik gehitzen eta ondorioz ez dela egokia ikusten iradokizunari kasu egitea.

Hala ere, eta zuzentzea proposatzen den bariante zatiaren ondotik gas banaketaren sarea dihoala eta, eta hau mugitu beharra dagoenez, haseran mugatutakoa baino lur zati handiagoa ukitzen delarik, gunearen handitzea egoki ikusten da gutxi gora behera 8 metroko zabaleran, aipatu lanak burutzearen.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere 7 partaideen aldeko botuarekin, eta beraz Udalak osatzen duten legezko gehiengo osoaren aldeko botuarekin, honako akordioak hartzen ditu:

- 1.- Lasa-Esnaolatarrek egindako iradokizuna zati batean estimatzea, etxearen inguruan honi atxikitutako lursaila handituz txosten teknikoan zehaztu moduan eta dena den hau dagokion garapen planeamenduko dokumentuak zehaztu beharko duela adieraziz.
- 2.- Oria-Estensorotarrei egindako iradokizuna zati batean estimatzea baita ere, txosten teknikoan adierazi moduan gunean sartzen den azalera handituz.
- 3.- Arau Subsidiarioetako aldaketa puntual honen abantzea onartzea eta teknikari erredaktatzaileei estimatutako iradokizunak kontutan izanda aldaketaren proposamen dokumentua idatz dezaten agintzea.

V.- ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA PUNTUALA. 10 H.A., 12 H.A., 1 S.: HASERAKO ONARPENA.-

Lazkaoko Udalak, 10 H.A., 12 H.A. eta 1 S. guneetako Arau Subsidiarioen aldaketa puntuala formulatu du. Dokumentua Roberto Gartzia Azpiri eta Ana Ezeiza Agirre arkitektoek eta Jon Orue-Etxebarria Iturri abogatuak idatzitakoa da eta aldaketak honako helburuak ditu:

- 12 H.A.n aurrikusitako zerbitzu erabilerak egoitzazkoengatiko ordezkatzeari.
- GI-120 errepidea, Lazkaomendiko bidea eta udalerrirako bidearen arteko bidegurutze glorietan birkokatzea.
- Errepide bariantearen zuzenketa, 3 Sektoreko hegoaldean hasten den oinezko bidearen jarraipena era berean 3 Sektorea eta 1 Sektorearen tartean hasitako bidearen jarraipena ahalbidetuz.
- Erdi gunearen batean ez baizik honen osagarria izango den hiri gune baten konfiguraketa.

Alkateak esaten du haserako onarpenera aurkeztu den dokumentu honetan, abantzean estimatutako iradokizunen ondoriozko aldaketak jasotzeaz gain Udalak egoki ikusi duela babes ofizialeko etxebizitzaren aurrikustea, 1 S. 30 etxebizitza eta 56 etxebizitza 10 eta 12 Hirigintza Areatan.

...///...

...///...

Dokumentua aztertu ondoren, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere 7 partaideen aldeko botuarekin, eta beraz Udala osatzen duten legezko gehiengo osoaren aldeko botuarekin, honako akordio hauek hartzen ditu:

- 1.- 10 H.A., 12 H.A. eta 1 S. guneetako Arau Subsidiarioetako aldaketa puntual honi haserako onarpena ematea.
- 2.- Dokumentua jendaurrean hilabete batez jartzea iragarkia Udaletxeko iragarki oholean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta El Diario Vasco eta Egunkaria egunkarietan argitaratuz.

VI.- 3 SEKTOREKO UDAL JABETZAKO LURSAILAK BESTERENGANATZEKO ENKANTEAREN ESLEIPENA.-

3 Sektoreko udal jabetzako lursail eraikigarriak besterenganatzeko deitutako enkantera aurkeztutako eskeintzen aurrean eta kontratazio mahaiaren proposamenaren aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuarekin, honako akordio hauek hartzen ditu:

- 1.- Ondorengo esleipen hauek onartzea:

<u>LURSAILA</u>	<u>IZEN ABIZENAK</u>	<u>ZENBATEKOA</u>
7 Zbk.dun lursaila	Silvia GOMEZ TOLOSA	90.152,00 €
22 Zbk.dun lursaila	Construcciones ZUGA, S.L.	174.293,50 €
24 Zbk.dun lursaila	Construcciones ZUGA, S.L.	192.323,86 €

- 2.- Esleipen hauen ondorioz dagozkion dokumentuak izenpetzeko Alkatea ahalmentzea.

VII.- LAZKAON AGAUNTZA ERREKAREN ZATI BAT INGURUNE ALDETIK BERRESKURATZEKO PROIEKTUA (2. FASEA).-

Lazkaoko Udalaren aginduz Ikaur, S.L. enpresak "Lazkaon Agauntza errekaaren zati bat ingurune aldetik berreskuratzeko Proiektua (2.fasea)" idatzi du. Proiektua Mikel Salaberria Ingenieroak idatzi du eta administrazioaren ezaguerarako aurrekontua (B.E.Z. barne) milioi bat laurehun eta berrogeita hamaika mila laurehun eta hirurogeita bederatziz euro eta hogeita sei zentimotakoa (1.451.469,26,-) da.

Osoko Bilkurak, dokumentua aztertu ondoren, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuarekin, honako akordioak hartzen ditu:

- 1.- "Lazkaon Agauntza errekaaren zati bat ingurune aldetik berreskuratzeko Proiektua (2.fasea)" proiektua haserakoz onartzea.
- 2.- Proiektua 15 lanegunetako denboraldian jendaurreko erakustaldian jartzea alegazio ondorioetarako.
- 3.- Jendaurreko erakustaldian inolako alegaziorik aurkeztuko ez balitz proiektua behin betikoz onartutzat joko litzateke espreski hartutako akordio berri baten beharrik gabe.

VIII.- DISPONIBILITATE BEREZIA.-

Udal Osoko Bilkurak, 1999ko maiatzaren 20an egindako batzaraldian, Lazkaoko Udalaren langileen plantilako zenbait lanpostu betetzen dituztenei, beraiek betetzen

...///...

...///...

dituzten funtzioek ordutegi berezietan aritu beharra dela eta, disponibilitate bereziko gehikuntza bat ezartzea erabaki zuen.

Udaltzain Agente - Brigadako Operari lanpostua akordio honen geroztik sortutako lanpostua izaki, eta lanpostu honek ere maila batean bere egitekoak ohiko lanorduetatik kanpoko jarduera berekin dakarrelarik, lanpostu hau betetzen duenari ere diponibilitate bereziko gehikuntza ezartzea planteatzen da.

Alkateak esaten du gehikuntza honen oinarri bezala urtean ehun eta hamar (110) ordutako kopurua hartuko litzatekela eta 1999ko maiatzaren 20an onartutako oinarrien arabera ordu hauen % 60a ordainketa egingo litzaioke langileari, ordu bakoitzaren baloraketa ohiko ordua eta jaiegunetako ez-ohiko orduaren tarteko baloraketa izanik. Bestalde sartutako orduak jai hartuko lituzke langileak, ordu bakoitzerengatik ordu bat hartuz. Gehikuntza hau aurtengo urtariletik hasitako ondorioekin izango litzeteke.

Zenbait zinegotziri eskatutako argibideak eman ondoren, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuarekin, Udaltzain Agente - Brigadako Operari lanpostuari disponibilitate bereziko gehikuntza hau jartzea erabakitzen du.

IX.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zortziak hogeita bost gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

...///...